

Bernadette Soulé 43 urteko garaztarra da.

Formakuntzaren aldetik, unibertsitateko 2 sailetan diplomatua da :

- lehenbizikorik matematika aplikatuetan eta zientzia sozialetan, maîtrise mailan, lur antolaketa eta tokiko garapen ekonomikoko DESS batekin osatua,
- bigarrenik, euskal ikasketan, maîtrise mailan.

Bere lan saileko bidea hasten du 12 urte pasatuz Ipar Euskal Herriko ekonomia behatzen eta aztertzen, lehenik 1992an sortu Ipar Euskal Herriko lehen behatoki ekonomikoan, ez zelarik orduan datu bakar bat ere Ipar Euskal Herriko ekonomiaz, ondotik 9 urtez Baionako Komerzio Ganbaran, behatoki ekonomiaz arduratuz lehenik eta ikerketa ekonomien zerbitzu buru gisa ondotik.

Garai horretan, aldi berean, Euskaltzaindiak galdeginik, IGNeke mapetan agertzen diren 12 000 euskal toponimoen grafia zuzentzeko helburua zuen proiektu bat eraman du.

2004ko irailaren 1an, Komerzio Ganbara utzi du Euskararen Erakunde Publikoan sartzeko EEP sortu orduko, dena eraikitzekoa zelarik.

EEPn, hizkuntza politikaren orientabide dokumentuen definitzean parte hartu du aktiboki :

- lehenik irakaskuntza sail estrategikoan : lehenik euskarazko irakaskuntza garatzeko helburua duen epe luzerako programazioaren 1. Atala (2005 urrian adostua), ondotik euskarazko irakaskuntza egituratzeko helburua duen 2. Atala (2008ko urtarrila) ;
- geri 2006ko abenduan adostua izan den Hizkuntza Politika Proiektua, gaur egun oraino EEPk eramaten duen hizkuntza politikaren dokumentu estrategikoa dena.

Azken denboretan, EEPk 2005-2010 epealdian eraman duen lanen auto-ebaluaketa eramaten parte hartu du, eta 2011-2016 epealdiarako Jokabide esparruaren defintze lanetan baita ere.

Obratze lanei doakienez, irakaskuntza xantierrean parte hartu du nagusiki, aldi berean Euskal Telebista (ETB1) telebistaren hedapen analogikoa numerikora

iragaitearen prestatzea bere gain hartuz. Joaitakoa den zuzendariaren ondoan, zuzendari orde funtzioak bete ditu azken denboretan.

Gaur egun idekitzen den EEPren bigarren fase honetan, zuzendari berriak Hizkuntza Politika Proiektuaren obratzea jarraiki beharko du, horretarako Administrazio Kontseiluak egun adostu duen Jokabide esparruan oinarrituz, jakinez dokumentu horrek heldu diren 6 urterentzat lehentasunak eta lan metodo bat definitzen dituela. Euskararen erabilpena garatzeko EEPren lanen garatzea eraman beharko du, transmisio sailean orain arte egina azkartuz eta egonkortuz, irakaskuntza saila bereziki.

Egituraren egonkortzea lagundu beharko du ere, tokiko instituzioen paisaian molde iraunkorrean jarriz. Izan ere, EEP azkartua ateratzen bada ere bere lehen bizi epealditik, bere kideek eta kanpoko eragileek balorizazio positiboa eman baitiote, izaeraz denboran mugatua den egitura da, 2011-2016 epealdian bere frogak oraino egin beharko dituen.

Azkenik, langilegoaren egituratzea jarraiki beharko du, aipatu helburuen probetxuko, jakinez gaur egungo lan taldearen konfigurazioa 10 posturena dela, eta etorkizun hurbilean 12tara pasatu behar litekeela.